

PROJET PÉDAGOGIQUE

De l'accueil de loisirs

ÉTÉ 2024

Dans ce projet pédagogique, écrit en continuité avec le projet éducatif, sont déclinés les objectifs pédagogiques et les moyens nécessaires à leurs mises en œuvre. Il servira de référence à la rédaction du projet d'animation. Tous les animateurs travaillant au centre devront en prendre connaissance et adhérer aux valeurs véhiculées dans ce projet. Est décrit également le fonctionnement général de l'accueil de loisirs. Les parents peuvent le consulter à tout moment.



2024ko UDAKO

aisialdi harlekuaren

PEDAGOGIA PROIEKTUA

Heziketa proiektuaren jarraipen gisa idatzi da pedagogia proiektu hau eta bertan pedagogia helburuak eta horien gauzatzeko bitartekoak zehazten dira. Animazio proiektua prestatzeko erreferentzia izanen da. Zentroan lan egiten duten animatzaile guztiek beharko dituzte proiektu honek dakartzan baloreak ezagutu eta haiei lotu. Aisialdi harlekuaren funtzionamendu orokorra azaltzen du ere. Gurasoek noiznahi ikus lezakete.

THÈME DU SÉJOUR : À LA DÉCOUVERTE DU MONDE
EGONALDIAREN GAIA : MUNDUAREN AURKIKUNTZA

CONTACT / HARREMANETARAKO

Carmen CARCELLER

arberoanalaiki@isturitz.fr

07.86.49.00.15 / 05.59.29.45.97

Accueil de loisirs Arberoan Alaiki aisialdi harlekua
Aiherrako bidea 95 route d'Ayherre – 64240 ISTURITZE

SOMMAIRE

1 – PRÉSENTATION DE LA STRUCTURE

2 – NOTRE PÉDAGOGIE

L'enfant acteur de ses loisirs
Une passerelle entre l'école, la famille et l'enfant
Sociabilité – Collectivité – Citoyenneté
La culture et la diversité
Le lien intergénérationnel

3 – NOTRE FONCTIONNEMENT

L'équipe d'animation
Les locaux
Les accueils
Périodes et horaires d'ouverture
Les activités animées
Les activités autonomes
L'accueil d'enfant en situation de handicap
La santé mentale et le bien-être des enfants
L'éducation à la non-violence

4 – UNE NUIT À ARBEROAN ALAIKI

5 – UNE JOURNÉE TYPE

AURKIBIDEA

1 – AURKEZPENA

2 – GURE PEDAGOGIA

Haurra bere aisialdien eragilea
Eskola, familia eta haurraren arteko zubia
Gizarteratzea – Kolektibitatea – Herritartasuna
Kultura eta aniztasuna
Belaunaldien arteko lotura

3 – GURE FUNTZIONAMENDUA

Lantaldea
Lokalak
Hartze uneak
Zabaltzealdiak eta ordutegiak
Animatu jardunak
Jardun autonomoak
Ahalmen urritasunen bat duten haurren harrera
Haurren ongizatea eta buru-osasuna
Bortizkeriaren kontrako heziketa

4 – GAU BAT ARBEROAN ALAIKIN

5 – OHIKO EGUN BAT

PRÉSENTATION

Arberoan Alaiki est un Accueil Collectif de Mineurs à Caractère Éducatif (ACMCE) sans hébergement, implanté dans la commune d'Isturitz depuis l'été 2015.

Cette structure est née d'une volonté politique des communes d'Ayherre, Isturits, Saint Esteben et Saint Martin d'Arbèroue, afin d'œuvrer en faveur de l'épanouissement, de l'émancipation et de l'éducation des enfants par la mise en place d'un lieu d'accueil proposant des activités éducatives.

Ces quatre communes rurales comptent environ 2300 habitants au total : environ 130 enfants fréquentent l'accueil de loisirs sur l'année.

En collaboration avec la Caisse d'Allocation Familiale et le Service Départemental à la Jeunesse, à l'Éducation et aux Sports, nous proposons des activités culturelles, sportives et artistiques. Des séjours avec nuitées peuvent être également organisés.

Arberoan Alaiki accueille les enfants scolarisés de 2 à 13 ans pendant les vacances d'été et les petites vacances scolaires (extrascolaire) ainsi que les mercredis de l'année scolaire (périscolaire), avec un maximum de 30 mineurs de moins de 6 ans.

L'accueil de loisirs se situe dans les locaux de l'école publique d'Isturitz, à proximité des équipements sportifs (trinquet, fronton, city stade, terrain engazonné, aire de pétanque, salle pour tous) et du parc de jeux communal.

Soucieux de maintenir les enfants dans une ambiance bascophone, la structure est bilingue (Basque/Français) et l'équipe pratique le basque et le français dans tous les moments de vie des enfants. Pour aller plus loin dans la mise en pratique du bilinguisme, l'accueil de loisirs a intégré en 2022 le dispositif linguistique *EUSKARAZ JOSTA*, encadré par la Communauté d'Agglomération Pays Basque, dispositif de labellisation des établissements d'accueil de loisirs bilingues et en langue basque.



AURKEZPENA

Arberoan Alaiki adin txikikoen ostatatze gabeko eta heziketa asmodun (ACMCE) talde harlekua da; Izturitze herrian da 2015ko udaz geroztik kokatua.

Aiherra, Izturitze, Donoztiri eta Donamartiri herrien asmo politikoaren ondorioz sortu da egitura hori, haurren loratzea, beren buruaren jabe jartzearen eta hezitzearen laguntzeko heziketa jarduerak proposatzen dituen harlekua plantan emanez.

Baserrialdeko lau herri horiek 2300 biztanle inguru dituzte orotara: 130 bat haur joaten dira, urtean zehar, aisialdi harlekura.

Familia Laguntza Kutxarekin eta Gazteriaren, Heziketaren eta Kirolen Departamendu Zerbitzuarekin elkarlanean, kultura, kirol eta arte jarduerak proposatzen ditugu. Gaua ere pasatzeko egonaldiak ere antola litezke.

Arberoan Alaiki harlekuak 2 eta 13 urte arteko eskola haurrak hartzen ditu udaz oporraldian eta eskolako opor txikietan (eskolaz kanpoko), bai eta eskolurteko asteazkenetan ere (eskolaldi ingurukoa), 6 urtez peko gehienez 30 haur hartuz.

Aisialdi harlekua Izturitzeko eskola publikoaren lokaletan da kokaturik, kirol hornikuntzetatik hurbil (trinketea, frontoia, city stade, belarreztatutako lursaila, petanka tokia, ororentzako aretoa), bai eta herriko jostalekutik hurbil ere.

Haurrak euskal giroan atxiki nahiz, egitura elebiduna da (euskara/frantsesa) eta lantaldea euskaraz eta frantsesez aritzen da haurren bizi une guztietan. Elebitasuna gauzatzen haratago joan nahiz, Euskal Hirigune Elkargoak gidatzen duen aisialdi harleku elebidunak eta euskarazkoak labelizatzen *EUSKARAZ JOSTA* hizkuntza baliabidean sartu da.

NOTRE PÉDAGOGIE

Les objectifs éducatifs du centre sont ancrés dans les valeurs républicaines : telles que la laïcité, l'égalité, la démocratie participative et la solidarité. Les orientations pédagogiques favorisent l'apprentissage de la vie collective, la découverte et l'expérimentation, par la pratique d'activités récréatives variées dans un cadre visant l'épanouissement des enfants.

L'ENFANT ACTEUR DE SES LOISIRS

Responsabiliser l'enfant et le rendre autonome : l'équipe d'animation élabore les règles de vivre ensemble avec les enfants. Ils participent également à la vie quotidienne du centre : rangement, propreté, mise en place et débarrasage lors des repas. Afin de renforcer cet objectif, une nuit de camping au sein de l'accueil de loisirs est organisée (cf. annexe).

Laisser l'enfant approfondir ses propres centres d'intérêts : les enfants vivent des temps d'activités animées, mais aussi des temps d'activités autonomes. L'équipe d'animation met également en place des ateliers éclatés. Ce sera un temps où les activités seront choisies à l'avance par les enfants eux-mêmes selon leurs envies.

Favoriser l'expérimentation et la prise d'initiatives : les jeux et le matériel d'activité restent à disposition des enfants. Les enfants qui le souhaitent pourront alimenter le site internet du centre avec articles et photos, mais aussi proposer des projets qu'ils veulent mettre en place (danse, pièce de théâtre, etc.). L'équipe d'animation pourra les accompagner tout au long de leurs réalisations.

Favoriser les actions de collectivité : l'équipe d'animation met en place des projets collectifs avec les enfants. Des temps de concertation et d'échange sont mis en place (« quoi de neuf ? » du matin, évaluations collectives). Des jeux coopératifs sont proposés aux enfants.

Être à son écoute : l'équipe organise des bilans collectifs ludiques et adaptés, une fois par semaine, afin de répondre au mieux aux attentes des enfants. Quatre délégués sont élus en début de semaine pour la semaine entière, et représenteront l'intégralité des enfants auprès de l'équipe d'animation lors du Conseil des Enfants. Afin d'évaluer le ressenti de chaque enfant individuellement, une roue des émotions est à sa disposition.

Favoriser un rythme de « vacances » : aucune activité n'est imposée, les différents types d'activités sont proposés en respectant la chronobiologie des enfants, la salle de sieste est laissée à disposition, et l'équipe d'animation laisse la possibilité aux enfants de jouer et rigoler sans autre but !

GURE PEDAGOGIA

Zentroaren heziketa helburuak errepublika baloreetan erroturik dira: laiktasuna, berdintasuna, parte hartze bidezko demokrazia eta elkartasuna. Pedagogia orientabideek talde bizitza ikastea laguntzen dute, bai eta ezagutza eta esperimantazioa, aisialdi jarduera zenbaiten bidez, haurren loratzea xerkatzen duen giro batean.

HAURRA BERE AISIALDIEN ERAGILEA

Haurra arduradun bilakatzea: animazio lantaldeak haurrekin batera prestatzen ditu bizi arauak. Zentroaren egunerokoan ere parte hartzen dute: biltzea, garbiketa, apairuetan plantan ematea eta bilketa. Helburu horren areagotzeko, akanpatze gau bat antolatzen da aisialdi harlekuan bertan.

Haurrari dituen interes gunetan sakontzen uztea: haurrak jarduera animatueto aldiak bizi dituzte, bai eta jarduera autonomoak ere. Animatzaile taldeak lantegi bereziak emanen ditu plantan (2 aldi osoan zehar). Tarte horietarako jarduerak haurrek hautatuko dituzte aitzinetik, nahi dutenaren arabera.

Esperimantazioa eta ekimena bultzatzea: jostailuak eta jardueretarako materiala haurren esku dira beti. Hala nahi duten haurrek zentroaren webgunea elika dezakete beren artikulu eta argazkiekin eta plantan eman nahi dituzten proiektuak proposa ditzakete ere (dantza, antzerki obra, etab.). Animatzaile taldeak lagun ditzake egiteko horietan.

Talde ekintzak bultzatzea: Animatzaile taldeak talde proiektuak ematen dituzte plantan haurrekin. Elkar aditze eta solas tarteak antolatzen dira (goizetako «zer berri?», talde balioztapenak). Lankidetzaz jostetako proposatzen zaizkie haurrei.

Haiei adi izatea: lantaldeak talde bilan ludiko eta haurrei egokituak antolatzen ditu, astean behin gutxienik, haurren nahiei ahal beste erantzun nahiz. Aste hastapenean, lau ordezkari hautatzen dira aste osorako; haur guztien ordezkari izanen dira animatzaileen eta zuzendariaren aitzinean, Haurren Biltzarrean. Haur bakoitzak bere sentipena adieraz dezan, badu emozioen errota bat baliatzea.

«Opor» erritmoa bultzatzea: ez da beharturiko jarduerarik; jarduera mota oro haurren kronobiologia zainduz proposatzen da; kuluxka aretoa beti eskura dute, eta animatzaile taldeak haurrei josta eta irri beste helbururik gabe aritzeko aukera ematen die!

SOCIABILITÉ – COLLECTIVITÉ – CITOYENNETÉ

Développer la communication, l'entraide et le partage entre les enfants, en mélangeant tous les âges dans la vie collective.

Favoriser le vivre ensemble en invitant les enfants à participer à la vie collective du centre de loisirs ; par le biais de jeux, d'actions (tâches quotidiennes, volontariat etc.).

Sensibiliser l'enfant à ses actions sur l'environnement, en mettant en place des éco gestes dans la vie quotidienne (poubelles de tri, recyclage des déchets alimentaires, informations sur le gaspillage...).

Apprendre à s'exprimer : en cas d'incident (disputes, coups, moqueries...), l'écoute, le dialogue et la réparation des erreurs sont privilégiés par l'équipe.

LA CULTURE ET LA DIVERSITÉ

Développer la créativité : l'enfant est amené à travailler son imaginaire tout en développant son expression à travers différentes activités. Plusieurs techniques sont proposées, comme le dessin, la peinture, le modelage ou le bricolage.

Faire connaître différentes formes d'Art : des activités sont proposées aux enfants autour du cinéma, de la photo, des arts plastiques, de la musique, de la danse, du sport pour permettre une ouverture d'esprit.

KULTURA ETA ANIZTASUNA

Sormena garatzea: haurri irudimena lantzeko bidea ematen zaio, jarduera zenbaiten bidez adieraz ahalmena garatuz. Hainbat teknika proposatzen zaizkio, hala nola marrazkigintza, margolaritza, moldaketa edota xutxiketa.

Arte molde desberdinak ezagutzera ematea: hurrei zinemaren inguruko, argazkigintzaren inguruko, arte plastikoen inguruko, musikaren, dantzaren, kirolaren inguruko jarduerak proposatzen zaizkio izpirituaren zabaltzeko.

JENDETASUNA – KOLEKTIBOTASUNA – HERRITARTASUNA

Haurren arteko komunikazioa, elkar laguntza eta partekatzea garatzea, talde bizitzan adin guztiak nahastuz.

Elkarbizitza bultzatzea lankidetzak jarduerak eta jostetak plantan emanez (eguneroko egitekoak, bolondresak, ...)

Haurri ingurumenaren gainean egin ditzakeenaz ohartaraziz, egunerokoan ekokeinuak plantan emanez (sailkatze ontziak, lurrustela...).

Adierazten irakastea: arazorik balitz (liskarrak, kalduak, trufak...), aditzea, elkarrizketa eta hutsen zuzentzea lehenesten ditu lantaldeak.

UNE PASSERELLE ENTRE L'ÉCOLE, LA FAMILLE ET L'ENFANT

Favoriser le bilinguisme dans tous les temps de vie du centre : dans le cadre du dispositif *EUSKARAZ JOSTA*, l'accueil de loisirs met en place le modèle *ERDIZKA* (demi-journée en langue basque), tout en s'adaptant aux enfants unilingues. Dans ce cadre, l'accueil de loisirs investit dans du matériel pédagogique en basque (livres, CDs, jeux), et fera intervenir des personnes extérieures qui proposeront des animations en langue basque.

Des temps pour découvrir la langue et la culture basque de façon ludique sont proposés afin de susciter l'intérêt des enfants qui ne pratiquent pas la langue.

Renforcer le lien social entre les enfants et les parents des différents villages : les groupes seront constitués de manière à créer une mixité des enfants des quatre villages, afin qu'ils puissent se rencontrer, ou se retrouver. Une soirée spectacle sera organisée afin que les familles puissent se rencontrer.

LE LIEN INTERGÉNÉRATIONNEL

Développer des projets et activités ludiques permettant aux enfants d'être en lien avec des adultes : un temps de jeux et de partage avec les familles sont organisés.



BELAUNALDIEN ARTEKO LOTURA

Haurrei helduekin loturik izateko aukera ematen dieten proiektu eta jarduera ludikoak garatzea: familiekin jostetan aritzeko aldiak antolatua dira.

ESKOLA, FAMILIA ETA HAURRAREN ARTEKO ZUBIA

Zentroaren bizi une orotan elebitasuna bultzatzea: *EUSKARAZ JOSTA* baliabidearen harira, aisialdi harlekua *ERDIZKA* eredu ari da plantan ematen, betiere elebatar diren haurrei ere egokituz. Horretarako, aisialdi harlekuak euskarazko materiala (liburuak, diskoak, jokoak) erosten ditu eta animazioak euskaraz proposatuko dituzten kanpoko eskuhartzailak ekarriko ditu.

Euskara eta euskal kultura jostetan ezagutzeko tarteak proposatzen dira, euskaldun ez diren haurren interesa sortzeko.

Herri desberdinetako haurren eta burasoen arteko gizarte lotura areagotzea: taldeak lau herrietako haurrak nahasiz antolatzen dira, elkar ezagut dezaten edota elkartu daitezen. Ikusgarri bat antolatua izanen da, familiek elkar dezaten.

NOTRE FONCTIONNEMENT

L'ÉQUIPE D'ANIMATION

L'équipe se compose de :

Carmen CARCELLER, responsable de l'accueil, diplômée BAFD
Elorri LANDABURU, agent d'animation BAFA (juillet)
Élisa BARNETCHE, animatrice BAFA
Inès MOUSTIRATS, animatrice BAFA
Amaia PAVON, animatrice BAFA
Inès SALLABERRY, animatrice BAFA
Gexan MARTINON, animateur BAFA
Maiana DUHART, stagiaire BAFA (juillet)
Lola SALLABERRY, stagiaire BAFA (juillet)
Matéo SABALOUE, stagiaire BAFA (août)
Émilie BORDA, animatrice non diplômée

L'arrivée et le départ des animateurs se font de manière échelonnée (de 7h30 à 9h00, et de 17h00 à 18h30). Une pause de 30 minutes est mise en place avec un roulement par groupe de deux ou trois, de 13h00 à 14h30.

Tout au long du séjour, la directrice est présente sur la structure, dès 7h30, toute la journée, et toute la semaine. Elle sera amenée à s'absenter ponctuellement pour effectuer les achats goûters et autres ravitaillements lors des créneaux où tous les animateurs seront présents. Elle peut basculer en animation afin de respecter le taux d'encadrement réglementaire.

Afin de créer une cohésion de groupe, la directrice organise deux demi-journées de représentation et de préparation du séjour avec l'ensemble des animateurs.

Pendant le séjour, l'équipe d'animation se réunit une fois par semaine afin de faire le bilan de la semaine écoulée, et de finaliser l'organisation de la semaine suivante. Une évaluation collective a lieu lors de ce temps. Une autre, individuelle cette fois, est mise en place à mi séjour.

GURE FUNTZIONAMENDUA

ANIMAZIO LANTALDEA

Honako hauek dira lantaldekideak:

Carmen CARCELLER, zuzendaria (ZIGA-BAFD)
Elorri LANDABURU, Animatzailea (AIGA-BAFA) uztailean
Élisa BARNETCHE, Animatzailea (AIGA-BAFA)
Inès MOUSTIRATS, Animatzailea (AIGA-BAFA)
Amaia PAVON, Animatzailea (AIGA-BAFA)
Inès SALLABERRY, Animatzailea (AIGA-BAFA)
Gexan MARTINON, Animatzailea (AIGA-BAFA)
Maiana DUHART, Egonaldian (AIGA-BAFA) uztailean
Lola SALLABERRY, Egonaldian (AIGA-BAFA) uztailean
Matéo SABALOUE, Egonaldian (AIGA-BAFA) uztailean
Émilie BORDA, Animatzailea diplomarik gabe

Animatzaileen heltzea eta alde egitea pixkanaka egiten da (7:30etik 9:00etara, eta 17:00etatik 18:30era). 30 minutuko geldialdi bat dago, bizpahiruko taldeka aldizkatze batekin, 13:00etatik 14:30era.

Egonaldi osoan zehar, zuzendaria egituran da, 7:30etik, egun osoan eta aste osoan. Tarte labur batzuetan izan liteke egituratik at, askarietarako edo bestelako erosketak egiteko, betiere animatzaile guztiak bertan diren denbora tarteetan. Animatzaile ari liteke arauak behartzen duen gidari kopurua betetzeko.

Talde kohesioa lortzeko, zuzendariak egonaldia aurkeztu eta prestatzeko egun erdiko bi saio antolatzen ditu animatzaile guztiak bilduz.

Egonaldia bitartean, animatzaileen lantaldea astean behin biltzen da igaro den astearen bilana egin eta hurrengo astea antolatzen bukatzeko. Aldi horretan, taldearen balioztapena egiten da. Banakako balioztapena egonaldiaren erdialdean egiten da.

LES LOCAUX

Le centre dispose de deux salles d'activités communicantes à l'étage (une climatisée) : elles sont réservées aux 2 - 5 ans. Elle est équipée de mobilier adapté. L'une des deux salles est équipée de lits. La sieste est imposée aux enfants de trois ans, et fortement proposée aux autres afin de respecter leur rythme. Le coin sanitaire est adapté aux plus petits.

La salle de repos et de temps calme est située au rez-de-jardin. Des matelas, des poufs, des livres sont à disposition des enfants toute la journée. Un coin sanitaire est attenant à cette salle. Selon les effectifs, cette salle peut servir de salle d'activités pour les mineurs de 6 à 8 ans.

Une partie de la salle polyvalente est réservée aux plus grands, de 9 à 13 ans, pour leurs activités. Elle abrite également des jeux et du matériel sportif disponible pour tous.

La salle de cantine « On Egin » est équipée de mobilier et de matériel adaptés aux enfants. Les repas sont livrés par « Bertakoa ». Dans une perspective d'autonomie et d'anti-gaspillage, la cantine est proposée sous forme de self : l'enfant se sert son repas, sous la surveillance des animateurs. Un animateur est présent à chaque table durant le repas afin de favoriser les échanges, et de s'assurer du bon déroulement du repas. A la fin, chaque enfant débarrasse son couvert. Chaque jour, des responsables de table seront désignés afin de veiller au bon rangement, et d'aider les animateurs au nettoyage des tables. Si la météo le permet, les repas peuvent être pris à l'extérieur.

Les goûters sont pris soit à l'extérieur, soit dans la salle polyvalente (climatisée en cas de forte chaleur).

Les aménagements extérieurs (aire de jeux, terrains) et le trinquet sont laissés à disposition de l'accueil de loisirs. Un calendrier d'occupation est affiché pour pouvoir partager ces espaces avec le public.

Le bureau de la directrice et la salle de pause des animateurs se situent dans l'enceinte de l'accueil de loisirs, à l'écart des salles d'activités.

LOKALAK

Zentroak elkarri loturik diren bi areto ditu goiko solairuan (batean aire girotua dago): 2-5 urtekoentzat dira. Haiei egokitu altzariak ditu. Bi areto horietako batek oheak ditu. Lokuluska egitera beharturik dira 3 urteko haurrak eta gainerakoei zinez proposatzen zaie, haien erritmoaren begiramenez. Garbigela eta komun txokoa txikienei egokiturik da.

Atsedean eta lasaialdiko gela baratze mailako solairuan da. Haurrek egun osoan zehar dituzte eskura lastairak, pufak eta liburuak. Garbigela eta komun txokoa dute gela horren ondoan. Haur kopuruaren arabera, gela hori aktibitateentzat erabilia izan daiteke.

Erabilera anitzeko aretoaren alde bat handiei uzten zaie, 6 eta 13 urte artekoei, bakarrik, beren jardunetan ari daitezen. Nahi duen orok erabiltzeko jostailu eta kirol materialak daude ere hor.

«On Egin» jantokiak haurrei egokitu altzari eta materialak ditu. Haurren autonomiarako eta gehiegi ez xahutzeko, jantokia autozerbitzuan eskaintzen da: haurrak berak du bere janaria hartzen, betiere animatzaileen begiradapean. Bazkaldu bitartean, mahai bakoitzean animatzaile bat dago, solasak bultzatu eta bazkaria ongi gertatuko dela bermatzeko. Bazkaltzen buka eta haur bakoitzak bere mahaikoak biltzen ditu. Mahai arduradun bat hautatuko da egunero bilketa ongi egiten dela bermatu eta animatzaileei mahaiak garbitzen laguntzeko. Batzuetan, apairua kanpoan egiten dugu, aroaren arabera.

Askariak kanpoaldean edo erabilera anitzeko aretoan hartzen dira (aire girotuarekin bero handia izanez gero).

Kanpoaldeko hornikuntzak (jostalekua eta lurrak) eta trinketea bi egunez behin uzten dira zentroaren esku. Egutegia afixatua da tokiak ongi parteka ditzagun jendearekin.

Zuzendariaren bulegoa eta animatzaileen atsedenekua aisialdiko harrera-gunean dira, aktibitate geletatik aparte.



LES ACCUEILS

Ce sont des moments de la journée importants, exigeant une attention particulière. Ils doivent être rassurants et conviviaux pour les parents, mais aussi pour les enfants accueillis. Lors de ces temps d'accueil, c'est le travail de l'équipe d'animation qui est reflété.

Accueil du matin : Un animateur se tient à l'entrée du centre, il note sur les fiches de transmission toute observation importante des parents concernant l'enfant. Il note la présence des enfants et est chargé de les orienter vers leurs groupes respectifs. Les animateurs présents sur le temps d'accueil proposent divers ateliers d'activités calmes où chaque enfant peut évoluer à son rythme (Puzzles, dessins, coloriages, jeux de société, lego, kapla). Les enfants ont également le droit de faire une activité en toute autonomie, ou de ne rien faire, afin de prendre possession des lieux et s'installer à leurs rythmes.

Le cahier de transmissions est tenu tout au long de la journée, afin qu'un retour personnalisé puisse être fait aux parents lors de l'accueil du soir.

Accueil du soir : Un animateur se tient à l'entrée du centre. Il reçoit les parents, et transmet un retour individualisé de la journée de leur enfant.

Les parents peuvent rentrer dans les locaux pour accompagner en douceur leur(s) enfant(s) le matin, ou les récupérer le soir et partager avec eux les moments passés à l'accueil de loisirs.

HARTZE UNEAK

Eguneko une garrantzitsuak dira eta arte berezia behar da hor eman. Segurtasuna eta giro atsegina behar dizkiete une horiek eskaini hala gurasoei nola hartuak diren haurrei. Hartze une horietan, animazio lantaldearen lana ikusten da.

Goizeko hartze una: Animatzaile bat da zentroaren sargian eta transmisio fitxetan gurasoek haurrari buruz egin ohar garrantzitsu oro idazten du. Haurrak hor direla seinatzen du eta haur bakoitza beraren taldera bideratzen du. Hartze unean diren animatzaileek jarduera lasaietako lantegiak proposatzen dizkiete haurrei, non haur bakoitza bere gisara ari bailiteke (buruhaustea, marrazkiak, koloraketak, mahai jokoak, legoak, kapla). Haurrak erabat autonomo aritzeko edo ezer ez egiteko eskubidea du ere, lekuaz jabetu eta bere eritmoaren arabera koka dadin.

Transmisioen kaiera egun osoan zehar erabiltzen da, gurasoei, arratseko topatze unean, haurraren egunaren berri eman ahal izateko.

Arratseko topatze una: Animatzaile bat izanen da zentroaren sargian eta gurasoak hartuko ditu eta haurraren egunaren berri emanen die.

Gurasoak lokaletan sar daitezke goizetan, bere(n) haurra(k) goxo-goxoki ekartzeko, edo haien xerka jin aratsetan eta egunean zehar aisialdi zentroan egin dutena haiekin aipatu.

PÉRIODE ET HORAIRES D'OUVERTURE

L'accueil de loisirs Arberoan Alaiki accueille les enfants scolarisés de 2 à 13 ans.

Il ouvrira ses portes le lundi 8 juillet, jusqu'au vendredi 16 août. Il sera fermé le jeudi 15 août.

Les horaires d'ouverture sont de 7h30 à 18h00. L'accueil du matin se fait de 7h30 à 9h00. Les départs du soir sont entre 17h00 et 18h00.

Les inscriptions comprennent le repas du midi (jours de sortie inclus) et le goûter.

ZABALTZE ALDIAK ETA ORDUTEGIAK

Arberoan Alaiki aisialdi harlekuak 2 eta 13 urte arteko eskolameak hartzen ditu.

Ateak uztailaren 8, astelehenarekin, irekiko ditu, abuztuaren 16 ostirala arte. Abuztuaren 15 ostegunean hetsirik izanen da.

Zabaltze ordutegia 7:30etik 18:00etara da. Goizeko harrera 7:30etik 9:00etara egiten da. Arratseko abiatzeak 17:00ak eta 18:00ak artean eginen dira.

Izena ematen dutenek barnean dituzte hala bazkaria (baita ateraldi egunetan ere) nola askaria.



ANIMATU JARDUNAK

Adin tarte bakoitzerako egokiak eta animatzaile batek edo batzuek gidaturik dira.

Animatzaile lantaldeak prestatzen dituzte jarduera horiek pedagogia helburuei zuzenki loturik.

Haurra gaien murgiltzeko, istorio bat sortzen diote animatzaileek taularatzeekin eta antzezte txikiekin. Asteazkenean, eguneko bi jardunaldi animatu proposatzen zaizkie haurrei. Ostirala jarduera handiei loturik izan ohi dira, haurrei azken helburu baten emateko eta astea ororena den proiektu bat plantan emanez bururatzeko.

Gaiari loturiko ateraldiak antolatzen dira egonaldi osoan zehar. Egun horietarako izena eman duten haurren gurasoei aitzinetik emanen zaie horren berri. Aisialdi zentroan gau bat ematea ere antolatzen da.

LES ACTIVITÉS ANIMÉES

Elles sont animées par un/des animateur/s, et adaptées à chaque tranche d'âge.

Les activités sont construites par l'équipe d'animation en lien direct avec les objectifs pédagogiques.

Afin de plonger l'enfant dans le thème, une histoire est créée autour de ce dernier, entraînant mises en scènes et petits scénarios de la part des animateurs. Durant la semaine, deux temps d'activités animées par jour sont proposés aux enfants. Les vendredis sont souvent associés aux grosses activités, permettant de donner un objectif final aux enfants et de clôturer la semaine par la mise en place d'un projet commun à tous.

Des sorties, si possible en lien avec le thème, sont organisées tout au long du séjour. Les parents dont les enfants sont inscrits sur ces journées seront prévenus par mail à l'avance. Une nuit au centre de loisirs est également organisée.



LES ACTIVITÉS AUTONOMES

Afin de respecter le rythme de chaque enfant, aucune activité ne leur est imposée.

De nombreuses activités permanentes sont à disposition des enfants tout au long du séjour. Les espaces du centre sont aménagés pour amener l'enfant à choisir ses activités en autonomie, dans un cadre sécurisant et bienveillant.

Ainsi, un enfant qui ne sera pas intéressé par les activités animées du jour pourra tout de même venir au centre pour pratiquer celles disposées en permanence.

Les activités autonomes extérieures : jeux de ballons, draisienne, corde à sauter, balançoires, toboggan, ballons sauteur, pelote (trinquet), mölkky, pétanque, badminton, etc.

Les activités autonomes intérieures : baby-foot, château gonflable, trampoline, jeux de société, jeux de construction, poste de musique, coins lecture, peinture, dessin, matériaux de bricolage, jeux de découvertes, jeux symboliques...

Les activités autonomes permettent aux enfants de faire un choix d'activité en fonction de leur envie du moment. Les enfants peuvent les faire seuls, mais aussi en petits groupes, ce qui leur permet de tisser des liens et d'échanger selon leurs centres d'intérêts.

Même si elles sont dites « autonomes », les activités sont toutefois toujours encadrées afin de veiller à la sécurité et au bien-être des enfants.



JARDUN AUTONOMOAK

Haur bakoitzaren erritmoaren begiramenez, ez zaie inolako jardueratan aritu beharrik ezartzen.

Egonaldi osoan zehar dute jarduera anitzetan aritzeko aukera. Zentroko lekuak antolatzeko manierak haurrak bere jardunak autonomoki hauta ditzan bilatzen du, ingurune segurtatzaile eta goxoan.

Halatan, bada, eguneko jarduera animatuetan interesik ez duen haurra zentrora, berdin-berdin, etorri eta etengabe eskura diren jardunetan ari liteke.

Kanpoaldeko jarduera autonomoak: baloi jokoak, draisinak, saltatzeko soka, gorgoinak, txirrista, jauzte baloiak, pilota (trinketea), mölkky-a, petanka, badminton, etab.

Barnealdeko jarduera autonomoak: mahai-futbola, gaztelu puzgarria, tranpolina, mahai jokoak, eraikitze jokoak, musika gunea, irakurketa txokoak, margolaritza, marrazkia, xitxuketa, ezagutze jokoak, joko sinbolikoak...

Jarduera autonomoek une bakoitzean duten gogoaren arabera jarduera hautatzeko aukera ematen diete haurrei. Haur bakoitza bere kontura edo talde txikitari ari liteke eta, hartara, dituen interesen arabera aritu eta besteekin lotzeko aukera du.

Jarduera horiek «autonomoak» deituagatik ere, beti zaintzapean dira, haurren segurtasuna eta ongizatea bermatzeko.

L'ACCUEIL D'ENFANT EN SITUATION DE HANDICAP

Les locaux sont adaptés à l'accueil de personnes en situation de handicap ; si un projet d'accueil est organisé, une évaluation et une rectification de l'aménagement intérieur et de l'organisation de l'espace sera menée.

Par temps de formation ou par mise à disposition de ressources pédagogiques, l'équipe d'animation sera informée, sensibilisée, rassurée, et accompagnée.

L'équipe d'animation développera la notion de vivre ensemble au sein du groupe d'enfant : respecter l'autre, accepter les différences, travailler sur la tolérance...

L'accompagnement des familles est essentiel dans ce type d'accueil pour connaître le degré d'autonomie de l'enfant. Une rencontre avec l'équipe d'animation et les parents aura lieu avant l'accueil afin d'apprendre les gestes quotidiens, etc. Pendant l'accueil, des points seront faits sur l'évolution de l'enfant dans cet environnement, la relation avec les autres, etc. En fin d'accueil, un bilan sera dressé par l'équipe d'animation, les parents et l'enfant.

LA SANTÉ MENTALE ET LE BIEN-ÊTRE DES ENFANTS

Au vu du contexte actuel, la santé mentale des enfants est impactée, c'est pourquoi nous privilégions les activités extérieures qui permettent aux enfants un lâché prise.

Nous privilégions les sorties en plein air, et proposons des animations basées sur la relaxation et la respiration, pour reprendre contact avec le corps.

La nature et l'environnement de proximité nous permettent de nous déplacer en dehors de l'ACMCE (balades, jeux sportifs...). L'équipe d'animation et les enfants se réservent donc le droit de sortir de l'enceinte de l'accueil de loisirs pour une courte balade à n'importe quel moment de la journée, en respectant les horaires d'accueil.

HAURREN ONGIZATEA ETA BURU-OSASUNA

Egungo egoerak hunkitu du haurren buru osasuna; hartara, kanpoko jardueri emanen diegu lehentasuna, haurrei laxatzeko aukera ematen baitiete.

Aire zabaleko ateraldiei ematen diegu lehentasuna, bai eta lasaitze eta hatsean oinarritu animazioei ere, gorputzarekin berriz ere harremanetan jar daitezten.

Hurbileko ingurumenak eta naturak haurren talde harlekutik at aritzeko aukera ematen digute (ibilaldiak, kirol jokoak...). Animatezaile lantaldeak eta haurrek aisialdi harlekutik atera litezke, beraz, nahi dutenean, betiere harlekuaren ordutegiaren barnean.

AHALMEN URRITASUNEN BAT DUTEN HAURREN HARRERA

Lokalak ahalmen urritasunen bat dutenak hartzeko egokiturik dira; harrera proiekturen bat antolatuz gero, barneko hornikuntzen eta lekuen antolakuntzaren azterketa egin eta behar diren zuzenketak egingen dira.

Formakuntza aldietan edota pedagogia baliabideak eskura ematean, animatezaileen lantaldeari informazioa, ohartzeko gaitasuna, segurtasuna eta laguntza emanen zaizkio.

Animatezaile lantaldeak elkarbizitzaren nozioa garatuko du haurren taldean: bestearen begiramenez aritzea, bestelakotasunak onartzea, irekitasuna lantzea...

Halako harreretan funtsezkoa da senideak laguntzea, animatezaileek haurren autonomia maila ezagutuko badute. Harrera egin aitzin, bilera bat egingen da animatezaile lantaldearen eta gurasoen artean, eguneroko jokamoldeen eta abarren ezagutzeko. Harrera egin bitartean, haurrek ingurumen horretan duen bilakaerari eta besteekikn dituen harremani eta abarrei buruzko puntuak egingen dira. Harrera aldia bururatzean, bilan bat egingen dute animatezaile lantaldeak, gurasoek eta haurrek.

L'ÉDUCATION À LA NON-VIOLENCE

Un coin à l'écart, dans le bureau de la directrice, est aménagé spécialement pour les enfants qui se retrouvent débordés par leurs émotions.

Ils peuvent se servir de bouteilles sensorielles et de peluches pour s'apaiser. Une roue et un livre sur les émotions, permettant aux enfants de s'exprimer quand ils en ressentent le besoin sont mis à disposition. L'enfant se repère à travers celles-ci (joie, tristesse, colère, gaieté, sérénité), ce qui lui permet de mieux comprendre ce qu'il se passe dans son corps, et de mettre des mots sur ses différentes humeurs, comportements et/ou attitudes.

Un affichage est créé avec les enfants afin de mettre en place des règles et de poser un cadre dans l'accueil de loisirs. Ils verbalisent ce qu'il est possible de faire ou non et pourquoi, afin de veiller au bien-être de chacun.



BOZTIZKERIAREN KONTRAKO HEZIKETA

Zuzendariaren bulegoan, xoko bat bereziki antolatua da, emozioek gainezka hartzen dituen haurrendako.

Botila sentsorialak eta ilaunkizko jostailuak erabil ditzakete lasaitzeko. Emozioei buruzko gupil eta liburu bat ematen zaie eskura, haurrek behar dutenean mintza daitezten. Haurra haien bidez ernatzen da (alaitasuna, tristura, haserrea, alaitasuna, lasaitasuna), eta horrek aukera ematen dio bere gorputzean gertatzen dena hobeki ulertzeko eta bere umore, jokamolde eta/edo jarrerei buruzko hitzak ezartzeko.

Afixatze-taula bat sortua da haurrekin arauak lekuan ezartzeko eta kuadro bat indarrean emateko aisialdi zentroan. Zer egin daitekeen edo zer ez, eta zergatik adierazten dute, bakoitzaren ongizatea zaintzeko.



UNE NUIT À ARBEROAN ALAIKI



GAU BAT ARBEROAN ALAIKIN

POUR RESPONSABILISER L'ENFANT ET DÉVELOPPER SON AUTONOMIE

En le faisant participer à l'élaboration de la liste des courses, au montage des tentes, à la préparation des repas (soir et matin), à la gestion des affaires...

**ELKARLAGUNTZA ETA
PARTEKATZEA GARATZEKO**
Akanpaketa 3 – 7 urtekoentzat da ;
handienak txikienetaz arduratu
beharko dira, talde bizitzan
laguntza emanez (oihal etxolen
muntaketa, kokatzea, apairuak...

POUR QUE L'ENFANT SE CRÉE DE BEAUX SOUVENIRS DE VACANCES

En passant une nuit hors de chez eux, avec leurs amis, et leurs animatrices préférées !

POUR DÉVELOPPER L'ENTRAÏDE ET LE PARTAGE

Le camping étant ouvert aux enfants de 3 à 7 ans, les plus grands devront s'occuper des plus petits en les aidant dans la vie collective (montage des tentes, installation, repas...)

HAURREN ARTEKO LOTURA AREAGOTZEKO

Bai eta animatzaile taldearekin ere, giru atsegineko uneak partekatuz.

HAURRAK OPOR OROITZAPEN EDERRAK OSA DITZAN

Gau bat etxetik at eginez, beren adiskide eta animatzaile maiteenekin!

POUR RENFORCER LE LIEN ENTRE LES ENFANTS

Mais aussi avec l'équipe d'animation, en partageant des moments de convivialité.

HAURRA ARDURADUN IZAN DADIN ETA AUTONOMIA GARA DEZAN

Erosketen zerrenda
prestatzen, oihal etxolen
muntaketan, apairuen
prestaketan (afaria eta
gosaria), pusken kudeaketan...
parte hartuz



L'accueil de loisirs ouvrira ses portes de nuit pour permettre aux enfants de passer une nuit inoubliable !

Elle se déroulera du mardi 6 au mercredi 7 août.

Ce camping est ouvert aux enfants de 3 à 7 ans. Pour une question de bonne organisation, les places seront limitées.

Les enfants inscrits sur les deux journées seront prioritaires, mais il est possible d'inscrire votre (vos) enfant(s) sur une journée + la nuit.

Les enfants inscrits pour la journée du 6 août ne seront en aucun cas contraint à participer à ce temps de camping, le but n'étant pas de forcer les enfants à rester à l'accueil de loisirs.

Cette nuit sera facturée 3€ de plus par enfant, comme les sorties.

Le campement sera monté dans le jardin public. Nous bénéficierons ainsi de toutes les commodités à proximité : sanitaires, douches, cuisine.

L'environnement est fermé, sécurisé, et déjà connu des enfants, ce qui rassurera les plus petits.

En cas de pluie, nous nous replierons dans la salle pour tous du village.

Le repas du soir, ainsi que le petit déjeuner seront préparés par nos soins, avec la participation des enfants.

17h00 : montage des tentes et installation

18h00 : douches / préparation repas / temps libre

19h30 : repas froid

20h30 : début de veillée

21h30 : fin de veillée / couchers

7h00 : réveils et petits déjeuner échelonnés

8h30 : rangement du campement

Aisialdi zentroa gauaz irekira izanen da, hurrek ezin ahantzizko gaua pasa dezaten.

Agorrilaren 6 asteartetik 7 asteazkenerako gaua izanen da.

Akanpatze hori 3 – 7 urtekoentzat zabalik da, txikienetatik handienetaraino. Antolaketa ona bermatzeko, leku kopurua mugatua izanen da.

Bi egunetarako izena emanik duten hurrek ukanen dute lehentasuna, baina egun bat + gaua bakarrik pasatzeko eman dezakezue ere zure haur(ra)ren izena(k).

Agorrilaren 6ko egunerako izena eman haurrak ez dira, inolaz ere, akanpatze horretan parte hartzera beharturik izanen, asmoa ez baita haurrak aisialdi harlekuan gelditzera behartzea.

Gau horren prezioa + 3 €koa izanen da, haur bakoitzeko, ateraldiena bezalaxe.

Akanpalekua herri lorategia izanen da. Hartara, hurbileko aisetasun guztiak ukanen ditugu eskura: komunak, dutxak, sukaldea.

Ingurumena hetsirik izanen da, segurtatua eta hurrek ezagutzen dutena; hori txikienen lasaigarri izanen da.

Euria bada, herriaren ororentzako aretora bilduko gara.

Afaria eta gosaria guk prestatuko ditugu, hurrek lagundurik.

17:00: oihal etxolen muntaketa

18:00: dutxak / afariaren prestatzea / aldi libre

19:30: afari hotza

20:30: afalondoaren hastapena

21:30: afalondoaren amaitzea / oheratzeak

7:00: iratzartzeak eta gosariak pixkanaka

8:30: akanpalekuaren biltzea

Il vous sera demandé de fournir :

Honako hauek ekar itzazue:

- Une tente par famille / Oihal etxola bat familiako
- Un sac de couchage par enfant / Lozaku bat haur bakoitzeko
- Un pyjama / Pijama bat
- Un doudou / Kuttun bat

- Un nécessaire de toilette (gel douche, serviette, brosse à dent, dentifrice) / Garbiketa puska (dutxa gela, xukadera, hortzetako eskuila, hortzetako ore)
- Une lampe torche / Eskuargia
- Des changes / Troxak

**LE NOM DE VOTRE (VOS) ENFANT(S) DEVRA ÊTRE INSCRIT SUR TOUTES LES AFFAIRES.
PUSKA OROTAN EMAN BEHARKO DUZUE ZUEN HAUR(RA)REN IZENA.**

UNE JOURNÉE TYPE

7h30 : Ouverture du centre

7h30 – 9h30 : Accueil du matin jusqu'à 9h00 / Activités autonomes / Jeux animés

9h30 – 10h00 : Rassemblement / Quoi de neuf ?

10h00 – 11h30 : Activités animées ou autonomes

11h30 – 12h00 : Rangement / Passage aux toilettes

12h00 – 13h30 : Repas

13h30 – 15h00 : Temps calme / Temps libre / Sieste

15h00 – 16h00 : Activités animées ou autonomes / Sieste

16h00 – 16h15 : Rangement / Passage aux toilettes

16h15 – 17h00 : Goûter

17h00 – 18h00 : Arrivée échelonnée des parents / Activités autonomes / Jeux animés

18h00 : Fermeture du centre

18h00 - 18h30 : Rangement / Entretien des locaux

OHIKO EGUN BAT

7:30: Zentroaren zabaltzea

7:30 – 9:30: Goizeko hartze unea 9:00ak arte / jarduera autonomoak / Joko animatuak

9:30 – 10:00: Elkarretaratzea / Zer berri?

10:00 – 11:30: Jarduera animatuak edo autonomoak

11:30 – 12:00: Bilketa / Komunera joatea

12:00 – 13:30: Bazkaria

13:30 – 15:00: Lasaialdia / Aldi askea / Loaldia

15:00 – 16:00: Jarduera animatuak edo autonomoak/ Loaldia

16:00 – 16:15: Bilketa / Komunera joatea

16:15 – 17:00: Askaria

17:00 – 18:00: Gurasoen pixkanaka heltzea / Jarduera autonomoak / Joko animatuak

18:00: Zentroaren hestea

18:00 – 18:30: Lokalen bilketa/ Garbiketa

Fait à Isturitz le 25/05/2024 par l'équipe d'animation
Izturitzen, Maiatzaren 25ean, animazio taldea egina.